

- **NOLA ERAKARRIKO DITUZUE BEZERO BERRIAK, ETA NOLA MANTENDU ETA HAZI ARAZIKO DITUZUE BEZERO HORIEK?** Bezero berriak erakartzeko, publizitatearen eta komunikazio-kanpainen bidez jardungo dugu, batez ere sare sozialen, webgunearen eta desgaitasunen arloan lan egiten duten elkarte eta erakundeekin dugun lankidetzaren bidez. Gure zerbitzuen berri emango dugu, proiektuaren balio inklusiboa eta soziala azpimarratuz.

Bezeroak mantendu eta hazteko, kalitatezko arreta pertsonalizatua eskainiko diegu, bakoitzaren beharretara egokitua. Gure enpresan jarrai dezaten, behar duten guztia emango diegu, baliabide egokiak, ingurune seguru eta atsegina eta etengabeko laguntza eskainiz. Gainera, gure esku dagoen guztia egingo dugu ongizatea, konfiantza eta gogobetetasuna bermatzeko, horrela epe luzerako harremanak sortuz.